

altza

# Piñata igandea, gainezka

Donostiako inauteria bukatu eta hurrengo igandean, tradizio bihurtu da Altzan «Piñata igandea» ospatzea.

Poliki poliki indartzen joan da inauteri txiki hau. Joan den igandeko desfilea ikusgarria izan zen, Lau Haizeta ingurutik hasi eta Harria parkeraino mota guztietako mozerro, karrroza eta dantzak ikusi ahal izan ziren.

Greziar garaiko eta samba dantzarien jantziak aukeratu zituzten Gurea eta Santa Barbara elkarteek esaterako. Donostiako inauterietan eta desfilean ibilitako hainbat konpartsek ere hartu zuten parte inauteri txiki honetan eta baita Errenteriatik eta Pasaiatik etorritakoak ere.

Aurtengo Donostiako Momo Jainkoa, Angel Arnedo eta laguntzaileak ere jo eta ke ibili ziren.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Giro ezin hobea izan zen otsailaren 25ean Altzan. Bertan izan ziren konpartsen artean «Aitor» ikastolakoak gertatu zen irabazle.

## gros-ulia

**Uzturrera txangoa** antolatu du auzoko Gazte Lokalak martxoaren 17-rako. 09.00etan abiatuko dira Auzo Elkartetik eta bazkaria bakoitzak berea eman beharko du.

**Harkaitz Mendoza,** 12 urteko pianojoleak lehenengo saria lortu du Pariseko lehiaketa batean. Baina hau ez da izan sari ba-

karra, lau eskutara Judith Jauregirekin batera lehenengo saria eskuratu baitu baita ere.

**Mantxuene eta General Artetxe** kaleetako bizilagunen eta Udalaren arteko hitzarmen sinadura egun batzuk atzeratu da. 40 familia dira kaltetuak, baina guztientzat tokirik egongo ez de-

nez, 22-25 inguru itzuliko dira eraikiko den etxe berrira. Beste guztiek dirua jasoko dute alde egitearen truke. Brues promotorak datorren urteko abuzturako etxea bukatzea espero du. Epe honetan kalte-tuak errentan biziko dira Udalak ordainduta. Jendea hasi da jada, gauzak etxetik ateratzen.

AITZIBER GURUTZEAGA (TFNOA.: 272884)

## INTXAUSTI DIETETIKA



jaki osasuntsu eta naturalak

Jose Elozegi 120 • Tfnoa.: 39 89 84

## Bertan eginak • Etxez-etxeko banaketa




GOZO ETA BONBOI DENDA

Txirrita bertsolaria, 3 • Tfnoa.: 391605 ALTZA



Tirafondoak • Torlojuak  
Burdinesiak • Itzeria  
Sukaldeko bateria  
Baxerak • Kristala  
Eraikuntzarako burdineria

Egia, 13 • Tfnoa.: 27 88 37



PREMIAZKO BIDALKETAK

Bulegoak: Donostia: 32 01 41 • Zumaiak: 14 34 80


intxaurren

# Meteorologia zentro berria

.....

Eraikuntza berriaren hezurdura ia amaiturik dago

**Glorieta bat** eraikiko da Garberan, Eroskiko hipermerkatu inguruan egingo diren lanetan. Martutenerekin jarriko da zuzenean harremanetan gure auzoa, egingo den errepide berriarekin. Garberatik hasi eta Martuteneko 27. poligonoraino iritsiko da bide hau. Beraz, glorieta etorkizuneko ibilbidea eta egungo zatiketa ekiditeko asmoz egingo da. Aurki, Eroskira zuzenean iristeko karril berri bat zabalduko da.



Auzotarrek behin eta berriro eskatu dute Etxaide Borda etxe zaharreko ingurunea auzo guztiak erabili ahal izateko zelai edo parke izan dadila.

**Udalak** urteroko aurrekontuen banaketa egin zuen. Intxaurren 25 milioi egokitu zaizkio eta auzoaren saneamendua eta Zubiaurre pasealekuko lanak jarraitzea aurrirakusten da.

**Pilotazaleek** oso ontzat jo dute frontoi nagusia estaltzea. Trenbidearen alboetatik haize bolada ikaragarriak iristen ziren eta oraindik ere arazo hori guztiz gainditu ez bada ere, eskertzekoa izan da egindako lana. Egunero pilotan egiten dutenek eta pilota txapelketan murgilduta dauden pilotari eta ikusleek ere majo esker-tuko dute.

**E**txaide-Borda etxea hotsa zutenetik ia bi urte bete dira eta orain dela gutxi arte, ikutu gabe egon da lur sail hau. Hala ere, poliki-poliki meteorologia zentroaren lanek egin dute aurrera azken hilabateotan eta izango denaren hezurdura ia gorpuzturik dagoela esan dezakegu.

### Berdegunek inguruan

Parada baserriaren bukaeran dagoen orube honen tamaina izugarria da,

5.118 m betetzen baititu. Hala ere, zentroak zorua-ren %25 hartuko du soilik eta altuerak aurrez zegoen etxearen berbera behar du izan. Orotara, lau solairu izango ditu eraikuntzak, bakoitza bere atalekin, eta sotoa ere izango da.

Inguruko berdeguneei eustea ere lortu du Hirigintza Batzordeak. Berdegune hauek, hesirik gabe egongo dira. Bestalde, Luis Pradera kalean espaloiak jarriko dira eta dauden zuhaitzak mantenduko.

### Bisitaldiak

Igeldo eta Mirakruz kaleko zentroak bildu nahi ditu eraikuntza honek eta bertan, klimatologia, garapen eta azterketa atalak eta behatokia izango dira, tresna moderno eta egokienak erabiliz.

Inguruko ikastola eta interesa duten guztientzat bisitaldiak egingo dira, tresnak eta bertako funtzionamendua ezagutzeko.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)

ARGAZKIA: IMANOL OTEGI

## OTXOKI BIDEODENDA

BIDEOKLUB OTXOKI GOXOKIAK

BIDEO-PELIKULAK ALOKATZEN ETA SALTZEN DIRA, OPARIAK, GOXOKIAK...

Sagastieder 8, behea (sarrera Galizia kaletik)  
Tfnoa.: 29 11 24 • DONOSTIA



- Pintxo hotz eta beroak
- Bokatak eta kaxuelak
- Berezitasuna: ganbak eta kalamarrak

Baratzategi 28 • INTXAURRONGO • Tfnoa.: 32 16 40